


# Hirigintza Zuzenbidea

# Hiztegia



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



**Hirigintza Zuzenbidea**

# **H**IZTEGIA



KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2019

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren  
*Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke:

**<http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>**

Argitaraldia:	I.a, 2019ko abendua
Ale-kopurua:	I.500 ale
© argitaraldi honena:	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz
Internet:	<a href="http://www.euskadi.eus/euskalterm">www.euskadi.eus/euskalterm</a>
Azala:	Concetta Probanza
Inprimaketa:	C.G. Ganboa, S.L.
ISBN:	978-84-457-3479-7
Lege gordailua:	SS I289-2019

## HITZAURREA

**B**este edozein hizkuntza bezalaxe, euskara ere berritzen eta modernizatzen doa egunetik egunera, bizirik dagoen seinale. Bide horretan ezinbestekoa da euskararen aberastasun lexikoa elikatzea, zaintzea eta sustatzea, bai hizkuntza bera normalizatzeko, bai erabiltzaileen premietara egokitzeko. Hain zuzen ere, helburu horiek bete nahian ikusi du argia eskuartearen duzun hiztegi honek, orrialde hauetan jorratzen den eremuko erabiltzaile eta hiztunek lanabes erabilgarria izan dezaten beren egunerokoan.

Hiztegi honetan aurkituko duzun terminologia Euskararen Aholku Batzordearen Terminologia Batzordeak gomendatutakoa da. Batzordeari dagokio, besteak beste, terminologia-alorrean dauden lehentasunak finkatzea, lan-proposamenak egitea, terminologia-lanerako irizpideak ezartzea, ponderazio-markak finkatuta termino lehiakideen arteko lehentasunak jartzea eta terminoen erabilera onestea eta gomendatzea.

Terminologia Batzordeak onartutako gainerako hiztegiak bezala, hiztegi hau ere EUKALTERM Euskal Terminologia Banku Publikoan [www.euskadi.eus/euskalterm](http://www.euskadi.eus/euskalterm) dago integratuta.

Banku hau etengabe elikatzen eta zabaltzen ari gara Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik IVAPekin lankidetzan, Eusko

Jaurlaritzak bideratu eta sustatu nahi duen terminologiaren produkzioaren, kudeaketaren eta hedapenaren muina izan dadin. EUSKALTERM metodologia eta irizpide jakin batzuen arabera eguneratu eta elikatzen da, betiere Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planeari jarraituz.

Hiztegi hau erabiltzaileen oinarrizko premiak asetzeko baliagarri izatea nahi genuke, hemen jorratzen den terminologiaren erabilera normalizatzeko eta gure hizkuntzaren eguneratzearen bidean urrats garrantzitsua izan dadin. Hiztegi hau eta honekin batera argitaratzen ditugun guztiak eguneroko jardunean erabiltzera animatzen zaituztegu, euskaldunok gero eta hizkuntza aberatsagoa izan dezagun.

*Vitoria-Gasteiz, 2019ko abenduaren 20a*

**MIREN DOBARAN URRUTIA**

Hizkuntza Politikarako sailburuordea

## HIZTEGIARI BURUZKO ARGIBIDEAK

Hiztegi hau UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroak egin du EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa ([www.euskara.euskadi.eus/euskalterm](http://www.euskara.euskadi.eus/euskalterm)) eguneratzeko eta elikatzeke entitate horrek Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin (HPS) izenpetutako kontratuaren barruan. Kontratua HPSk eta IVAPEk finantzatu dute, bi erakunde horiek sinatutako hitzarmenaren bidez.

EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa da Terminologia Batzordeak<sup>1</sup> finkatutako terminologia-lana zabaltzeko ardatza. Aldi berean esan behar da Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planen barruan ezarritako lehentasunen arabera eguneratzen dela Terminologia Banku Publikoa. Euskararen Aholku Batzordeko Terminologia-batzorde atal bereziak euskarazko terminologia-lanerako finkatu zuen metodologiari jarraituta, hiztegi hau, lehenengoz, hizkuntzalariez eta eremuko adituez osatutako batzorde teknikoak aztertu eta landu zuen, Terminologia Batzordeari behin betiko proposamena luzatzeko. Normalizazio-prozesuaren azken urratsa Terminologia Batzordeak onartzea izan da. Beraz, hemen duzue eremu honetako terminologiaren erabiltzaileei **Terminologia Batzordeak gomendatzen dien terminologia.**

---

1 176/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskararen Aholku Batzordeari buruzkoa

### **Hiztegia erabilitako ponderazio-markak:**

(4) Termino normalizatua/gomendatua

(3) Termino onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako)

### **Hiztegia erabilitako laburtzapenak:**

**eu** euskara

**es** español

**Sin.** sinonimoa

**Ik.** ikus



# NORMALIZAZIOA

## BATZORDE TEKNIKOA

**Juan Landa** (Abokatuak. Ekain Abokatuak enpresa)

**Uralde Montón** (Arkitektoa. Lurralde Plangintza eta Hirigintza Zuzendaritza. EJ)

**Aloña Iribar** (UZEI)

Koordinatzailea: **Nerea Laskibar** (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

## TERMINOLOGIA BATZORDEA

**Miren Dobaran Urrutia**, Hizkuntza Politikarako sailburuordea, batzorde-ataleko lehendakaria

**Garbiñe Doval García**, IVAPEko Euskara zuzendariordea, batzorde-ataleko lehendakariordea

**Josune Zabala Alberdi**, EABko eta batzorde-ataleko idazkaria

**Araceli Díaz de Lezana Fernández de Gamarra**, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ordezkaria

**Ibon Olaziregi Salaberria**, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Euskara Zerbitzuaren ordezkaria

**Xabier Alberdi Larizgoitia**, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuko ordezkaria

**Gotzon Lobera Revilla**, Euskaltzaindiaren ordezkaria

**Maite Imaz Leunda**, IVAPEko ordezkaria

**Iker Etxebeste Zubizarreta**, Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxeko (UZEIko) ordezkaria

**Asier Larrinaga Larrazabal**, aditua

**Alberto Atxabal Rada**, aditua

**Naroa Gorostiaga Barriola**, aditua

**Mertxe Olaizola Maiz**, aditua

**Alfontso Mujika Etxeberria**, aditua

**Pascual Rekalde Irigoien**, aditua

## UZEI-REN LANKIDE IZAN DIREN ADITUAK

**Cesar Gallastegi Aranzabal.** Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko Zuzenbide Administratiboko irakaslea

**Garazi Etxeberria San Miguel.** Gasteizko Udaleko aparejadorea eszedentzian eta Usurbilgo bitarteko Udal Idazkaria

**Maite Uriarte Ricote.** Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko Administrazio-zuzenbideko irakaslea. Graduondoko Dekanordea.

# EREMU-ZUHAITZA



- 1 Lurralde-antolamendua**
- 2 Hirigintza. Funtzio publikoa**
  - 2.1 Herritarraren eta lurzoru-jabearen estatutua
  - 2.2 Lurzoruaren estatutua
    - 2.2.1 Lurzoruaren sailkapena
    - 2.2.2 Lurzoruaren kalifikazioa
- 3 Hirigintza-antolamendua**
  - 3.1 Eraikigarritasuna
  - 3.2 Hirigintza-antolamenduko tresnak
  - 3.3 Hirigintza-hitzaermenak, balioespenak eta ondare-erantzukizuna
- 4 Lurzoruaren eraldaketa**
  - 4.1 Tresnak eta egikaritze-eremua. Birpartzelazioa
  - 4.2 Jarduketa-sistemak
  - 4.3 Eraikitze-prozesua
- 5 Hirigintza-diziplina**

# AURKIBIDEA



## **Bokabularioa sailka**

1. LURRALDE-ANTOLAMENDUA . . . . .	14
2. HIRIGINTZA. FUNTZIO PUBLIKOA . . . . .	16
2.1. Herritarraren eta lurzoru-jabearen estatutua . . . . .	21
2.2. Lurzoruaren estatutua . . . . .	24
2.2.1. Lurzoruaren sailkapena . . . . .	24
2.2.2. Lurzoruaren kalifikazioa . . . . .	29
3. HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUA . . . . .	40
3.1. Eraikigarritasuna . . . . .	40
3.2. Hirigintza-antolamenduko tresnak . . . . .	44
3.3. Hirigintza-hitzaermenak, balioespenak eta ondare-erantzukizuna . . . . .	52
4. LURZORUAREN ERALDAKETA . . . . .	56
4.1. Tresnak eta egikaritze-eremua. Birpartzelazioa . . . . .	56
4.2. Jarduketa-sistemak . . . . .	62
4.3. Eraikitze-prozesua . . . . .	65
5. HIRIGINTZA-DIZIPLINA . . . . .	73
<b>Euskarazko aurkibidea . . . . .</b>	<b>75</b>
<b>Gaztelaniazko aurkibidea . . . . .</b>	<b>87</b>
<b>Erreferentzia bibliografikoak . . . . .</b>	<b>99</b>

# **BOKABULARIOA SAILKA**

## I. LURRALDE-ANTOLAMENDUA

1

### **4/1990 Legea, maiatzaren 31koa, Euskal Herriko Lurralde Antolamenduari buruzkoa (4)**

es Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco

2

### **bizitegi-kuantifikazio (4)**

Plangintzarekin bat etorri eta haren indarraldian, udalerrri batean eraiki daitekeen etxebizitza-kopurua.

es cuantificación residencial

3

### **Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordea (4)**

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoko kide anitzeko organoa. Aholkulari eta koordinatzaile gorenaren da lurraldearen, itsasertzen eta hirigintzen antolamendu-gaietan. Esleitu zaizkion informazio-eskumenez gain, organo eskuduna da, batetik, lurraldearen antolamendurako politikaren oinarriko irizpideak prestatzeko –betiere euskal sektore publikoaren ekonomia-plangintzan ezarritakoarekin bat–, eta, bestetik, lurralde- eta hirigintza-plangintzarako jarduketak eta horiek egikaritzeko koordinatzeko behar diren neurriak proposatzeko.

es Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco

4

### **Eusko Jaurlaritzako Lurralde Politikarako Aholku Batzordea (4)**

Lurralde-antolamenduaren arloan eskumena duen Sailari atxikita dagoen partaidetza-organoa. Jaurlaritzaren lurralde-politikaren nahitaezko koordinazioa bermatzen du, eta gizarte Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-antolamenduan inplika dadin ziurtatzen du.

es Consejo Asesor de Política Territorial del Gobierno Vasco

### **LAG**

Ik. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak

### **LPP**

Ik. lurralde-plan partzial

### **LPS**

Ik. lurralde-plan sektorial

5

### **Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (4)**

Sin. LAG (4)

Lurralde-antolamenduko tresnak; erreferentzia-esparru orokorra osatzen dute gainerako lurralde- eta hiri-antolamenduko tresnak formulatzeko, eta irizpideak eta arauak eratzen dituzte lurraldearen oreka bermatzeko.

es Directrices de Ordenación Territorial; DOT

6

**lurralde-antolamendu (4)**

Gizarteko politika ekonomikoen, sozialen, kulturalen eta ekologikoen adierazpen espaziala. Kontzeptu gidari bati jarraituz, eskualdeen garapen orekatua eta espazioaren antolamendu fisikoa lortzea du helburu.

**es** ordenación territorial;  
ordenación del territorio

7

**lurralde-antolamenduko plan (4)**

Udalerriaz gaindiko lurralde-antolamenduko tresna, lurralde-antolamenduko oinarrizko lerroak ezartzea helburu duena. Autonomia-erkidegoek beren estatutu-eskumenen babesean egiten dituzten planak dira, eta biztanleriaren, lurraldearen, jardueren, zerbitzuen eta azpiegituren artean lotura egokia lortzea dute helburu.

**es** plan de ordenación territorial

8

**lurralde-plan partzial (4)**

Sin. LPP (4)

Lurralde-antolamenduko tresna; lurralde-antolamenduaren gidalerroak garatzen ditu antolamendu xehatuagoa behar duten lurralde-esparru zehatzetan.

**es** plan territorial parcial; PTP

9

**lurralde-plan sektorial (4)**

Sin. LPS (4)

Lurralde-antolamenduko tresna; lurraldean eragina duten sektore-antolamenduko tresnak arautzen ditu. Eusko Jaurlaritzako sailek eta lurralde historikoetako foru-organismoek egiten dituzte.

**es** plan territorial sectorial; PTS

## 2. HIRIGINTZA. FUNTZIO PUBLIKOA

10

**105/2008 Dekretua, ekainaren 3koa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten presako neurriei buruzkoa (4)**

es Decreto 105/2008, de 3 de junio, de medidas urgentes en desarrollo de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo

11

**1093/1997 Errege Dekretua, uztailaren 4koa, Hipoteka Legea betearazteko Erregelamenduaren arau osagarriak, hirigintza-izaerako egintzak jabetza Erregistroan inskribatzeari buruzkoak, onesten dituen (4)**

es Real Decreto 1093/1997, de 4 de julio, por el que se aprueban las normas complementarias al Reglamento para la ejecución de la Ley Hipotecaria sobre inscripción en el Registro de la Propiedad de actos de naturaleza urbanística

12

**1492/2011 Errege Dekretua, urriaren 24koa, Lurzoruari buruzko Legearen balioespenen Erregelamendua onesten duena (4)**

es Real Decreto 1492/2011, de 24 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento de valoraciones de la Ley de Suelo

13

**2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa (4)**

Euskal Autonomia Erkidegoan hirigintza arautzen duen legea.

es Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo

14

**2/2008 Legegintzako Errege Dekretua, ekainaren 20koa, Lurzoruari buruzko Legearen testu bategina onesten duena (4)**

Estatu-legea, lurzoruaekin lotura duten konstituzio-eskubideak egikaritzeko eta konstituzio-eginbeharrak betetzeko uanean berdintasuna bermatzen duten oinarritzko baldintzak arautzen dituena. Halaber, lurzoruaaren araubide juridikoaren oinarri ekonomikoak eta ingurumenari buruzkoak ezartzen ditu, bai eta lurzoruaaren balioespena eta administrazio publikoek gai horretan duten ondare-erantzukizuna ere.

es Real Decreto Legislativo 2/2008, de 20 de junio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Suelo

15

**administrazio jardule (4)**

Antolamendu-plan jakin bat egikaritzeko ardura zuzenean bere gain hartzen duen administrazioa.

es administración actuante



16

**administrazioen arteko ituntzearen printzipio (4)**

Hirigintzaren printzipio orokorretako bat: lurralde- edo hirigintza-antolamenduan eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek elkarlana eta laguntza eskaini behar diote beste edozein administrazioari, hark bere eskumenak erabili ahal izateko. Era berean, beren artean itundu behar dituzte planak eta plan horiek gauzatzeko lurralde-antolamenduko tresnak eta egikaritze-tresnak.

**es** principio de concertación interadministrativa

17

**aprobetxamendu-transferentzien erregistro (4)**

Udal-administrazioak hirigintzako aprobetxamendu-transferentziak kudeatu eta inskribatzeko erakundea.

**es** registro de transferencias de aprovechamientos

18

**atzera eskuratzeko eskubide (4)**

Udalek duten eskubidea, jabeek dagoeneko besterendu dituzten lursailak eta eraikinak eskuratzekoa, betiere mugatzeak ukitutako ondasunen jabeek besterentzeko erabakia udalari jakinarazi ez badiote. Atzera-eskuratzailea higieztina eskuratu duenaren lekuan subrogatzen da. Plangintza-programa betetzea, lurzoru-ondare publikoa gehitzea eta higieztin merkatuan esku hartzea da eskubide horren helburua.

**es** derecho de retracto

**EEBE**

Ik. eraikuntzako enpresa bermatuen erregistro

19

**eraikuntzako enpresa bermatuen erregistro (4)**

Sin. EEBE (4)

Eraikuntza-obra bateko lanak egiteko kontratatu edo azpikontratatu nahi diren enpresek inskribatuta egon behar duten erregistroa. Autonomia-erkidego bakoitzeko lan-agintaritzak sortzen du.

**es** registro de empresas acreditadas en el sector de la construcción; REASC

**eroslehentasun-eskubide**

Ik. lehentasun-erosteko eskubide

20

**erregistro-inskripzio (4)**

**es** inscripción registral

21

**Euskal Autonomia Erkidegoko Hirigintza eta Etxebizitzarako Topagunea (4)**

Eusko Jaurlaritzak, udalek eta herritarrek etxebizitzaren arloan kontsultarako eta aholkularitzarako duten organismoa.

**es** Foro de Encuentro de Urbanismo y Vivienda de la Comunidad Autónoma del País Vasco

22

**garapen jasangarriaren printzipio (4)**

Hirigintzaren printzipio orokorretako bat: hirigintzako funtzio publikoak natura-baliabideen erabilera arrazoizkoa eta jasangarria seguratu eta lurralde-eredua definitu behar du.

**es** principio de desarrollo sostenible

23

### **hirigintza (4)**

Funtzio publikoa, honako zeregin hauek antolatzea, programatzea, zuzentzea, ikuskatzea, kontrolatzea eta egikaritzea helburu duena: a) lurzorua erabiltzea edo baliatzea; b) lurzoruaren hirigintza eraldatzea, hirigintza-antolamendua egikaritzuz; c) eraikuntza eta eraikingintza; d) eraikuntzak, eraikinak eta instalazioak erabiltzea, kontserbatzea eta birgaitzea.

**es** urbanismo

24

### **hirigintza-antolamenduaren koherentziaren printzipio (4)**

Hirigintzaren printzipio orokorretako bat: hirigintza-antolamendua interpretatu eta aplikatzeko egintza oro harentzako koherenteena eta eraginkorra den eran egin behar da, berezkoa duen legezko funtzioarekin bat etorritik eta betiere Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 7.2 artikuluan zehaztutako arauak kontuan hartuz.

**es** principio de coherencia de la ordenación urbanística

25

### **hirigintza-entitate laguntzaileen erregistro (4)**

Espanian, hirigintza-gaietan eskumena duen sailaren menpe dagoen erregistro administratibo publikoa. Bertan inskribatzen dira, besteak beste, hirigintza-entitateak eratzeko onepen-erabakiak, hirigintza-administrazio jardulearen udal-ordezkararen izendapena, estatutu-aldaketa eta hirigintza-entitateak ezerezteko, desegiteko eta likidatzeko erabakiak. OHARRA: Euskal Autonomia Erkidegoan, horrelako erregistroei hirigintza-intereseko taldeen erregistro esaten zaie.

**es** registro de entidades urbanísticas colaboradoras

### **hirigintza-hitzaermenaren administrazio-artxibo**

Ik. hirigintza-hitzaermenaren artxibo administratibo

26

### **hirigintza-hitzaermenaren artxibo administratibo (4)**

Sin. hirigintza-hitzaermenaren administrazio-artxibo (4)

**es** archivo administrativo de convenios urbanísticos

27

### **hirigintza-hitzaermenaren erregistro (4)**

Hirigintza-hitzaermenaren behin betiko testuaren ale osoa eta, halakorik balego, eranskinak biltzen dituen erregistroa.

**es** registro de convenios urbanísticos

28

**hirigintza-intereseko taldeen erregistro (4)**

Euskal Autonomia Erkidegoan, hirigintza-gaietan eskumena duen sailaren menpe dagoen erregistro administratibo publikoa. Bertan inskribatzen dira, besteak beste, hirigintza-entitateak eratzeko onspen-erabakiak, hirigintza-administrazio jardulearen udal-ordezkararen izendapena, estatutu-aldaketa eta hirigintza-entitateak ezerezteko, desegiteko eta likidatzeko erabakiak.

es registro de agrupaciones de interés urbanístico

29

**hirigintza-jarduketa (4)**

es actuación urbanística

30

**hirigintza-kudeaketa publiko egiteko eginbehar (4)**

es deber de publicidad de la gestión urbanística

**hirigintza-plangintzaren administrazio-erregistro**

Ik. hirigintza-plangintzaren erregistro administratibo

31

**hirigintza-plangintzaren erregistro administratibo (4)**

Sin. hirigintza-plangintzaren administrazio-erregistro (4)  
Foru-aldundiko erregistroa, udalek igorritako hirigintza-planak eta haien aldaketak eta berrikuspenak biltzen dituena.

es registro administrativo del planeamiento urbanístico

32

**hirigintzako gainbalio (4)**

es plusvalía urbanística

33

**hirigintzako plangintzaren eskumenaren printzipio (4)**

Hirigintzaren printzipio orokorretako bat: hirigintzaren antolamenduak bakarrik lotu dezake lurzorua erabilera jakin batzuekin, eta hark bakarrik esle diezazkieke lurzoruei erabilera jakin batzuk hirigintza-sailkapenaren eta -kalifikazioaren bitartez; hargatik eragotzi gabe lurralde-antolamenduko tresnei buruz legez xedatutakoa.

es principio de competencia del planeamiento urbanístico

34

**hirigintzako prebentzio-idatzohar (4)**

Hirigintza-legezketasuna betetzeko eta betearazteko Administrazioaren eskuetan jartzen den kautelazko gailua. Behin-behineko idazpena da, eta finka baten hirigintza-egoera publiko egitea du helburu. Honako kasu hauetan soilik egiten da: hirigintza-diziplinako espedientea hasten denean; plangintza-tresnak, plangintzaren egikaritzea eta lizentziak ezerezteko asmoarekin administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzen denean, eta espedienteetan ezarritako zehapenak beteko direla bermatzeko administrazio-premiamendua helburu duen espedientea hasten denean. Numerus clausus dira.

es anotación preventiva urbanística

**informazio publikoaren printzipio**

Ik. jendaurreko informazioaren printzipio

35

**jabetza-erregistro (4)**

Ondasun higiezinaren gaineko jabariari eta gainerako eskubide errealei buruzko egintzen nahiz kontratuen inskripzioa edota idatzoharra egiteko erregistroa.

es registro de la propiedad

36

**jarduera arriskutsu (4)**

es actividad peligrosa

37

**jarduera gogaikarri (4)**

es actividad molesta

38

**jarduera kaltegarri (4)**

es actividad nociva

39

**jarduera osasungaitz (4)**

es actividad insalubre

40

**jendaurreko informazioaren printzipio (4)**

Sin. informazio publikoaren printzipio (4)

Hirigintzaren printzipio orokorretako bat: indarrean dagoen plangintza osatzen duten dokumentu guztiek publikoak izan behar dute.

es principio de información pública

41

**kargen eta onuren banaketa (4)**

Plangintzatik eratortzen diren onurak eta kargak jabeen artean ekitatez banatzea eragiten duen hirigintza-antolamenduko printzipioa.

es reparto de beneficios y cargas

42

**lehentasunez erosteko eskubide (4)**

Sin. eroslehtentasun-eskubide (4)

Tokiko administrazioak edo, hala dagokionean, autonomia- erkidegokoak edo lurralde historikoetako foru-organoez duten eskubidea, jabeek kostu bidez eskualdatuko dituzten lursailak eta eraikinak lehentasunez eskuratzekoak. Plangintza-programa betetzea, lurzoru-ondare publikoa gehitzea eta higiezinaren merkatuan esku hartzea da eskubide horren helburua.

es derecho de tanteo

43

**lurzatiak biltze (4)**

Sin. partzelak biltze (4)

es concentración parcelaria

44

**lurzoru-erreserba (4)**

Erakunde publikoek eratzten duten lursail-stocka. Lursailok babes berezirik gabeko lurzoru urbanizazinean edo lurzoru urbanizagarri sektorizatugabeen muga daitezke, baldin eta lurzoru-ondare publikorako eskuratzen badira; mugaketa egin eta zortzi urtekoa izaten da eskuratzeko gehieneko epea.

es reserva de suelo

45

**lurzoruaren hirigintza-araubide (4)**

Lursail jakin baten erabilera konkretuaren araubidea eta lurzoruaren jabetzari atxikitako eskubide eta betebeharren multzoa zehazten dituen arau-multzoa.

es régimen urbanístico del suelo

46

**orubeen udal-erregistro (4)**

Izaera publikoko udal-erregistroa, orubeak, lursail urbanizatu gabeak eta kolokako eraikinak dituzten lursailak biltzen dituen.

es registro municipal de solares

**partzelak biltze**

Ik. lurzatiak biltze

47

**plangintzan herritarrek parte hartzearen printzipio (4)**

Hirigintzaren printzipio orokorretako bat: pertsona fisikoen eta juridikoen era guztietako partaidetza bultzatuz eta erraztuz egin, izapidetu, onartu eta egikaritu behar da hirigintza-antolamendua.

es principio de participación ciudadana en el planeamiento

48

**Plangintzaren Euskal Erregistroa (4)**

Hirigintza-plangintzaren erregistro administratiboek osatzen duten erregistroa. Lurralde-antolamenduko eskumenak dituen sailak kudeatzen du.

es Registro Vasco de Planeamiento

**2.1. Herritarraren eta lurzoru-jabearen estatutua**

49

**akzio publikoa egikaritzeko eskubide (4)**

es derecho a ejercer la acción pública

50

**azalera-eskubide (4)**

Eskubide erreala, titularrari bere jabetzakoa ez den lur batean eraikitakoaz gozatzeko aukera ematen diona. Nolanahi ere, lur horretan sestran, lurgainean zein lurpean eraikitzen dena haren jabetzakoa izaten da. Iraupen jakin bat du. Epea amaitzen denean, eskubidea iraungi edo amaitu egiten da, eta, beraz, orubean eraikitako guztia lurraren jabearentzat izaten da.

es derecho de superficie

51

**eraikitzeko eskubide (4)**

Lursailaren jabeak lur horretan eraikitzeko lortzen duen eskubidea; plangintzak edo hirigintzako legeriak ezarritako epearen barruan emandako lizentziarekin lortzen da, aurkeztutako proiektua toki horretan aplikatzekoa den hirigintza-antolamendurekin ados dagoenean.

es derecho a edificar

52

**espazio-eremu homogeneo (4)**

Lurzoru urbanizatuaren zona, dagokion hirigintza-antolamenduko tresnarekin bat etorriz hirigintzako parametro juridiko zehatzak dituen eta garatzeko berezko araudia aplikatu dakiokiena. Parametro horien bidez, zona horiek beren eraikinen erabilerengatik eta tipologiengatik modu berezian identifikatzen dira lurzoru urbanizatuaren gainerako zonekin. Lurzoru urbanizatuak balioesteko erabiltzen da.

es ámbito espacial homogéneo

53

**etxebizitza duinaz, egokiaz eta irisgarriaz gozatzeko eskubide (4)**

es derecho a disfrutar de una vivienda digna, adecuada y accesible

54

**finka jakin baten hirigintza-araubideari eta hirigintza-baldintzei buruzko informazioa administrazio eskudunarengandik jasotzeko eskubide (4)**

es derecho a ser informado por la administración competente del régimen y las condiciones urbanísticas aplicables a una finca determinada

55

**finkak eskualdatze (4)**

es transmisión de fincas

56

**herri-administrazioek lurralde-antolamenduari, hirigintza-antolamenduari eta haien ingurumen-ebaluazioari buruz duten informazioa jotzeko eskubide (4)**

es derecho a acceder a la información de que dispongan las administraciones públicas sobre la ordenación del territorio, la ordenación urbanística y su evaluación ambiental

57

**hirigintza-erakigarritasunaren doako lagapen (4)**

Erkidegoak hirigintza-gainbalioetan duen partaidetza; erakigarritasun haztatuaren % 15 lagatzean datza, urbanizazio-kargak kenduta.

es cesión gratuita de edificabilidad urbanística

58

**hirigintzako subrogazio erreal (4)**

Finkaren eskuratzailerak finkaren aurreko jabeak zuen hirigintza-egoera juridiko berean kokatzea.

es subrogación real urbanística

59

**immisio kutsatzaile (4)**

es inmisión contaminante

60

**irisgarritasun unibertsal (4)**

Herritar guztiek duten eskubidea, erabilera publikoko eta pribatuko eraikinetara, azpiegituretara, zuzkiduretara, ekipamenduetara, garraioetara eta zerbitzuetara jotzekoa.

es accesibilidad universal

61

**jabari publikoko ondasunak eta azpiegiturak eta hiri-zerbitzuak zaintzeko eta modu arrazoizko eta egokian erabiltzeko eginbehar (4)**

**es** deber de respetar y hacer un uso racional y adecuado de los bienes de dominio público y de las infraestructuras y los servicios urbanos

62

**kontserbatzeko legezko eginbeharrek eskatzen dueneraino hobekuntza- eta birgaikuntza-lanak egiteko eginbehar (4)**

Lursail, eraikuntza, instalazio eta eraikinen jabeek duten eginbeharra, ondasun horiek segurtasun, osasungarritasun, energia-eraginkortasun, txukuntasun eta apaintasun publikoko egoera onean mantentzekoa.

**es** deber de realizar los trabajos de mejora y rehabilitación hasta donde alcance el deber legal de conservación

63

**lurzoru-lagapen (4)**

**es** cesión de suelo

64

**lurzoruaren jabetza-eskubide (4)**

Une bakoitzean lurzoruak duen egoerarekin, sailkapenarekin, ezaugarri objektiboekin eta xedearekin bat etorritik lurzoria erabiltzeko, gozatzeko eta ustiatzeko ahalmena, betiere ondasunaren ezaugarriengatik eta izaerarengatik aplikagarri den legeriarekin bat etorritik.

**es** derecho de propiedad del suelo

65

**zuzkidura publikoak eta erabilera publikorako irekitako ekipamendu kolektiboak erabiltzeko eskubide (4)**

**es** derecho a acceder a la utilización de las dotaciones públicas y los equipamientos colectivos abiertos al uso público

66

**zuzkidura-karga (4)**

**es** carga dotacional

67

**zuzkidura-lagapen (4)**

Hirigintza-jarduketan betebeharra, plangintzan erabilera kolektiborako aurreikusitako espazioak (lurzoria edo eraikinak) jabari publikoari lagatzekoa.

**es** cesión dotacional

## 2.2. Lurzoruaren estatutua

### 2.2.1. Lurzoruaren sailkapena

68

#### **aprobetxamendu tipo (4)**

Sin. ereduzko aprobetxamendu (4)

Antolamendu batean zehaztutako lurzatiaren jabe bakoitzari bere jabetzako azaleraren proportzioan esleitzen zaion errentagarritasun-eskubidea. Lur-eremu baten jabeen artean izan daitezkeen desberdintasunak berdintzeko ezartzen da aprobetxamendu tipoa.

es aprovechamiento tipo

69

#### **area (4)**

Hiri-lurzoruaren antolamendu zehatuko eremua. Plan orokorrak zuzenean antola dezake, edo plan berezi batez antola daiteke.

es área

70

#### **azalera erabilgarri (4)**

es superficie útil

71

#### **banaketa-area (4)**

Aprobetxamendu-tipoa finkatzeko asmoz hiri-lurzorua eta lurzoru urbanizagarria lurralde-eremuetan banatzen denean eratzen den eremuetako bakoitza. Legeak ez die bestelako funtziorik esleitzen eta, beraz, ez dira egikaritze-unitateekin nahasi behar.

es área de reparto

72

#### **batez besteko aprobetxamendu (4)**

es aprovechamiento medio

73

#### **eraikigarritasuna handitzearen ondoriozko hiri-lurzoru finkatugabe (4)**

es suelo urbano no consolidado por incremento de edificabilidad

74

#### **eraikinik gabeko lurzoru (4)**

es suelo vacante de edificación

#### **ereduzko aprobetxamendu**

Ik. aprobetxamendu tipo

75

#### **galtzada (4)**

es calzada

76

#### **gutxieneko lurzati**

#### **eraikigarri (4)**

Sin. gutxieneko partzela eraikigarri (4)  
Eraiki ahal izateko beharrezkoa den gutxieneko azalera.

es parcela mínima edificable

#### **gutxieneko partzela**

#### **eraikigarri**

Ik. gutxieneko lurzati eraikigarri

77

#### **higiezin-komplexu (4)**

Finka independenteen arteko lotura, aldez aurretik taldea osatu gabe finkamultzo hori lurzati bakar gisa hartzea ahalbidetzen duena. Nahitaezkoa da finka horiek ondoz ondokoak izatea edo zuzkidura-lursail publikoak bananduak. Bi motatako higiezin-komplexuak daude: pribatuak eta hirigintzakoak.

es complejo inmobiliario



78

**higiezin-konplexu pribatu (4)****es** complejo inmobiliario privado

79

**hiri-lurzoru (4)**

Lurzoruaren sailkapenean bereizten diren hiru klaseetako bat. Klase horretakoak dira ezaugarri hauek dituzten lursailak: a) eraldatuak izan eta hiri-sarean sartuta daudenak edo sar daitezkeenak, sailkapena egiten duen plan orokorrak bere egin dituen neurrian; b) lurzoru urbanizagarri motakoak, urbanizazio-obra administrazioak eskuratzen dituenetik hirigintza-antolamendu egokiaren bidez urbanizatu direnean.

**es** suelo urbano

80

**hiri-lurzoru finkatu (4)**

Hiri-lurzoruaren kategorietako bat, ezaugarri hauek dituena: antolamendu xehatua du, ez du esleitzen lehendik dagoen hirigintza-eraikigarritasunaren gainean eraikigarritasun-gehikuntza haztaturik, eta ez du egikaritze-unitaterik mugatu beharrik.

**es** suelo urbano consolidado

81

**hiri-lurzoru finkatugabe (4)**

Hiri-lurzoruaren kategorietako bat, ezaugarri hauek dituena: a) ez du urbanizazio finkaturik, hirigintza-antolamenduan agindutako beharrezko zuzkidura, zerbitzu eta azpiegiturak ez edukitzeagatik; b) hirigintza-antolamenduak hirigintza-eraikigarritasun haztatu handiagoa esleitu dio.

**es** suelo urbano no consolidado

82

**hiri-sare (4)**

Hiri-morfologiaren azterketan, modu nolabait konplexuan edo erregularrean komunikatzen diren eta gurutzatzen diren elementuen multzoa. Lurzati bat hiri-lurzoruaren barruan kokaturik dagoela ulertzeko oinarritzko kontzeptua da.

**es** malla urbana

83

**hirigintza-eraldaketan dagoen landa-lurzoru (4)**

Lurzoru ez-urbanizatu, hirigintza-eraldaketa prozesuan dagoena.

**es** suelo rural en transformación urbanística

84

**hirigintza-partzelazio (4)**

Edozein lurzorutako orubeak, lurzatiak, finkak edo lursailak bi lote edo finka berri edo independentetan (edo gehiagotan) aldi berean zein hurrenez hurren zatitzeko edozein egintza, udalaren esku-hartzearen menpe dagoena. Sortutako lote edo finka berriek hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian egon behar dute. Lurzoru urbanizaezinean badaude, nekazaritza-sektoreko legeriak gutxieneko unitate gisa eskatzen duen azalera baino txikiagoa izan behar dute, jardueretarako eta erabileretarako beharrezkoak diren azpiegiturak edo zerbitzu kolektiboak izan behar dituzte, edo, edozein kasutan, lurzoria urbanizatzeko helburua izan behar dute.

**es** parcelación urbanística

85

**hirigintzako higiezin-komplexu (4)**

**es** complejo inmobiliario urbanístico

86

**landa-lurzoru (4)**

Lurzoruaren egoeretako bat. Egoera horretan daude ezaugarri hauek dituzten lurzoruak: a) lurralde- eta hirigintza-antolamenduek urbanizazio bidez eraldatuak izatetik babestu dituztenak; b) dagokion urbanizazio-jarduketa amaitu arte, lurralde- eta hirigintza-antolamenduko tresnek lurzoru urbanizatu izatera pasatzeko aurreikusi dituztenak; c) Lurzoru urbanizatu izateko betekizunak betetzen ez dituztenak.

**es** suelo rural; suelo rústico

87

**landa-lurzoru arrunt (4)**

Sin. landa-lurzoru babesgabe (4)  
Hirigintza-eraldaketan dagoen landa-lurzoruaren egoeran edo landa-lurzoru babestuaren egoeran ez dagoen beste edozein landa-lurzoru.

**es** suelo rural común; suelo rural no protegido

**landa-lurzoru babesgabe**

Ik. landa-lurzoru arrunt

88

**landa-lurzoru babestu (4)**

Lurralde- eta hirigintza-antolamenduek urbanizazio bidez eraldatua izatetik babestu duten landa-lurzorua.

**es** suelo rural protegido

**landa-nukleo**

Ik. landagune

89

**landagune (4)**

Sin. landa-nukleo (3)

Sei eta hogeita bost baserri artean dituen gunea, bizitza eta harremanak egiteko espazio publiko baten inguruan antolatua.

**es** núcleo rural

90

**lurzati (4)**

Sin. partzela (4)

Eraikigarritasuna eta erabilera edota hirigintza-erabilera independentea soilik esleitu zaion lurzoru-unitatea, hala sestran nola lurgainean edo lurpean dagoena.

**es** parcela

91

**lurzati zatiezin (4)**

Sin. partzela zatiezin (4)

**es** parcela indivisible

92

**lurzoru (4)**

Hirigintzako legeriaren arabera, plangintzako edozein figurak hartzen duen lurraldea. Antolamendu-plan eta -arauetako erabakiak eta aurreikuspenak garatzeko marko fisikoa eratzen du, eta hiru klasetan sailkatzen da: hiri-lurzorua, lurzoru urbanizagarria eta lurzoru urbanizaezina.

**es** suelo

93

**lurzoru urbanizaezin (4)**

Lurzoruaren sailkapenean bereizten diren hiru klaseetako bat. Klase horretakoak dira ezaugarri hauek dituzten lursailak: a) hirigintza-eraldaketarako egokiak ez direnak; b) hiri-garapenerako egokiak ez direnak.

**es** suelo no urbanizable

94

**lurzoru urbanizagarri (4)**

Lurzoruaren sailkapenean bereizten diren hiru klaseetako bat. Klase horretakoak dira ezaugarri hauek dituzten lursailak: a) hiri-sarean sartuta ez dauden arren edo oraindik sartzeko modukoak ez diren arren, hirigintza-eraldaketa egin ondoren hirigintza-erabileren euskarri izateko egokitzat jotzen direnak; b) plangintza orokorrean lurzoru urbanizaezin edo hiri-lurzoru gisa sailkatu ez direnak.

**es** suelo urbanizable; suelo apto para urbanizar

95

**lurzoru urbanizagarri sektorizatu (4)**

Lurzoru urbanizagarriaren kategorietako bat, ezaugarri hauek dituena: dena delako plan partziala formulatzeko, plan orokorrak edo sektorizatze-planak sektore jakin batean sartu du.

**es** suelo urbanizable sectorizado

96

**lurzoru urbanizagarri sektorizatugabe (4)**

Lurzoru urbanizagarriaren kategorietako bat, ezaugarri hauek dituena: urbanizagarri modura sailkatuta egon arren, plan orokorrak edo sektorizatze-planak ez du inongo sektoretan sartu.

**es** suelo urbanizable no sectorizado

97

**lurzoru urbanizatu (4)**

Lurzoruaren egoeretako bat. Egoera hori dute legez eta egiazki biztanleguneei dagozkien zuzkidura eta zerbitzuen sarean sarturiko lurzoruek.

**es** suelo urbanizado

98

**lurzoru urbanizatu eraiki (4)**

**es** suelo urbanizado edificado

99

**lurzoru-ondare publiko (4)**

Lurzoruaren merkatua arautzea, etxebizitzaren merkatua arautzea eta lurralde- eta hirigintza-garapena erraztea helburu duten ondasunen eta eskubideen multzoa. Administrazioak dituen gainerako ondasun orokorretatik bestelakoa da.

**es** patrimonio público de suelo

100

**lurzoruaren kalifikazio (4)**

Plangintzak erabilera globalak eta erabilera xehatuak esleitzea udal-mugarte osoko edo haren zati bateko zonei.

**es** calificación del suelo

101

**lurzoruaren sailkapen (4)**

Egiturazko hirigintza-antolamenduaren bidez, lur-eremuak hiri-lurzoruaren, lurzoru urbanizagarriaren edo lurzoru urbanizaezinaren lege-araubideari lotzea.

**es** clasificación del suelo

102

### **orube (4)**

Hiri-lurzoruko eremua, honako betekizun hauek guztiak betetzen dituena: a) dimentsioengatik eta ezaugarriengatik lurzati eraikigarria izatea; b) dagokion hirigintza-antolamenduko planean antolamendu xehatua edukitzea; c) hirigintza-plangintzako zehaztapan egokien arabera eta plangintza horretan ezarrita dauden edo hura aplikatzeko beharrezkoak diren lerrokadurak eta sestrak kontuan hartuta urbanizatua egotea.

**es** solar

### **partzela**

Ik. lurzati

### **partzela zatiezin**

Ik. lurzati zatiezin

### **plangintza-sektore**

Ik. sektore

103

### **sektore (4)**

Sin. plangintza-sektore (4)  
Lurzoru urbanizagarriaren antolamendu xehatuko eremua. Plan orokorrak edo sektorizatzeko-planak zuzenean antola dezake, edo plan partzial batez antola daiteke.

**es** sector; sector del planeamiento

104

### **urbanizatzeko jarduketa-programa duen lurzoru urbanizagarri (4)**

**es** suelo urbanizable con programa de actuación urbanizadora

105

### **urbanizatzeko jarduketa-programarik gabeko lurzoru urbanizagarri sektorizatu (4)**

**es** suelo urbanizable sectorizado sin programa de actuación urbanizadora

106

### **urbanizazioaren ondoriozko hiri-lurzoru finkatugabe (4)**

**es** suelo urbano no consolidado por la urbanización

107

### **zona (4)**

Espazio-eremua, antolamenduak kalifikazio homogeneoa esleitzen diona.

**es** zona

### **zonabanatze**

Ik. zonakatze

108

### **zonakatze (4)**

Sin. zonabanatze (3)

Hirigintza-antolamenduko teknika, erabileren banaketa espazialean oinarritzen dena.

**es** zonificación

109

### **zuzkidura-lurzoru (4)**

Zerbitzu publikoen eta erabilera kolektiboen euskarri den lurzorua.

**es** suelo dotacional

## 2.2.2. Lurzoruaren kalifikazioa

110

**A motako zerbitzu ez-linealen instalazio teknikoetarako erabilera (4)**

Lurzoru urbanizaezinarekin lotutako erabileraren barruan, azpiegiturretara bideratutako erabilera, instalazio-multzo handiak barnean hartzen dituen: ibilgailuentzako aire libreko aparkaleku handiak, ura araztu eta edangarri egiteko instalazioak, urtegi edo ur-biltegi handiak, energia elektrikoa ekoizteko zentralak, 100 metro karratu baino gehiagoko transformazio-estazioak, gasa ekoizteko zentralak, hondakin solidoak araztu eta tratatzeko instalazioak eta ingurune fisikoan antzeko eragina daukaten onura publikoko bestelako instalazioak.

**es** uso de instalaciones técnicas de servicios de carácter no lineal tipo A

111

**abeltzaintza-erabilera (4)**

Lurzoru urbanizaezinarekin lotutako erabileraren barruan, lehen sektoreko baliabideen ustiapenera bideratutako erabilera, zehazki lurra prestatzeko jardueretara bideratua, larreak, bazkalaboreak eta larratzeak lortzeko egiten dena.

**es** uso de ganadería

112

**aireko lineetarako erabilera (4)**

Lurzoru urbanizaezinarekin lotutako erabileraren barruan, azpiegiturretara bideratutako erabilera, energia elektrikoa garraiatzeko edo banatzeko sare-multzoa, bestelako helburua duten aire-lineak eta sarearen osagarriak diren euskarriak eta instalazioak barnean hartzen dituen.

**es** uso de líneas aéreas

113

**aireportu-erabilera (4)**

Komunikazio-erabilera, pertsonen eta salgaien aireko garraioari lotutako jardueretara bideratua.

**es** uso aeroportuario

114

**asistentzia- ekipamendurako erabilera (4)**

Gizarte-ekipamenduetarako erabilera, babesik gabe edo mendekotasun-egoeran dauden sektoreei edo kolektiboek informazioa, orientazioa eta asistentzia ematera bideratua; beste erabilera batzuekin osa daiteke. Irabazi-asmorik gabe garatzen da.

**es** uso de equipamiento asistencial

115

**azpiegitura-erabilera (4)**

Hiri-zerbitzuen oinarritzko azpiegiturak barnean hartzen dituzten jarduera eta espazioei dagokien erabilera. Honako hauek dira azpiegitura-erabilerearen modalitateak: ura hartzea, urez hornitzea eta ura banatzea; ur zikinak garbitzea eta araztea; energia elektrikoa ekoiztea eta energia elektrikoaren hornitzea; telekomunikazioa eta seinalizazioa; erregaiz hornitzea eta hondakinak kudeatzea.

**es** uso de infraestructuras

116

**B motako zerbitzu**

**ez-linealen instalazio**

**teknikoetarako erabilera (4)**

Lurzoru urbanizaezinarekin lotutako erabilerearen barruan, azpiegituratarako bideratutako erabilera, instalazio jakin batzuk barnean hartzen dituenak: irrati, telebista eta satelite bidezko komunikazioaren seinalea igorri eta jasotzeko estazioak, dorreak eta antenak; eta faroak, irrati-faroak eta antzeko eragina duten komunikazio-instalazioak.

**es** uso de instalaciones técnicas de servicios de carácter no lineal tipo B

117

**balio estrategiko altu (4)**

**es** alto valor estratégico

118

**basogintza-erabilera (4)**

Lurzoru urbanizaezinarekin lotutako erabilerearen barruan, lehen sektoreko baliabideen ustiapenera bideratutako erabilera, zehazki ekologia- edo paisaiababesa lortzea xede duen jardueretara bideratua: zuhaitz-espezieak landatzera edo ereitera.

**es** uso forestal

119

**behin-behineko erabilera (4)**

Oraindik onartutako antolamendu xehaturik ez duen area, sektore edo egikaritze-unitateetako erabilera. Salbuespenez onartzen da erabilera hori legeriak, lurralde-plangintzak edo hirigintza-plangintzak berariaz debekatzen ez duenean eta plangintzaren egikaritzea zailtzen ez duenean.

**es** uso provisional; uso de carácter provisional

120

**berezko erabilera (4)**

Area batean baimentzen eta ezartzen den erabilera gutusia.

**es** uso característico

121

**berotegirako erabilera (4)**

Lurzoru urbanizaezinarekin lotutako erabilerearen barruan, lehen sektoreko baliabideen ustiapenera bideratutako erabilera; zehazki, laboreak babesteko instalazio iraunkor, irisgarri eta itxietara bideratua.

**es** uso de invernaderos

122

**bide-sareari atxikitako erabilera (4)**

Komunikazio-erabilera, galtzadetako edo beste edozein bidetako zirkulazioaren berezko jardueretara bideratua.

**es** uso anejo a la red viaria

123

**bizitegi-erabilera (4)**

Pertsonen bititoki izatera bideratutako eraikinetan garatzen den erabilera.

Honako hauek dira bizitegi-erabilerearen modalitateak: etxebizitzarako bizitegi-erabilera, bizitegi-erabilera publikoa, zuzkidurarako bizitegi-erabilera eta bizitegi-erabilera kolektibo ez-familiarra.

**es** uso residencial

124

**bizitegi-erabilera kolektibo ez-familiar (4)**

Edozein motatako kolektibo ez-familiarrei bititokia ematera bideratutako erabilera; erabilera pribatuko araubidean egikaritzen da.

**es** uso residencial colectivo no familiar

125

**bizitegi-erabilera publiko (4)**

Pertsonen aldi baterako ostataua ematera bideratutako erabilera. Jarduera garatzen den eraikinaren edo establezimenduaren titularrak du jardueraren ardura, baina pertsona hori ez da ostatu hartuta daudenen artekoa.

**es** uso residencial público

126

**ehiza- eta arrantza-jardueretarako erabilera (4)**

Lurzoru urbanizaezinezekin lotutako erabilerearen barruan, aisialdiko ehiza-edo arrantza-jardueretara bideratutako erabilera.

**es** uso de actividades cinegéticas y piscícolas

**ekipamendu sanitariorako erabilera**

Ik. osasun-ekipamendurako erabilera

127

**ekipamendu soziokulturalerako erabilera (4)**

Gizarte-ekipamenduetarako erabilera, ezagutzak zaintzera, transmititzera eta kontserbatzera, artelanak erakustera eta ikerketara eta bestelako ekintza soziokulturaletara zuzendutako jardueretara bideratua. Titulartasun publikoko araubidean garatzen da, irabazi-asmorik gabe.

**es** uso de equipamiento socio-cultural

128

**ekonomia-jardueretarako erabilera (4)**

Industriarako erabilera eta hirugarren sektoreko erabilera, irabazi-asmoz egikaritua.

**es** uso de actividades económicas

129

**energia elektrikoa ekoizteko eta hornitzeko azpiegituretarako erabilera (4)**

Energia elektrikoa ekoizteko eta herriak eta eraikinak energia horretaz hornitzeko instalazioetara eta jardueretara bideratutako erabilera.

**es** uso de infraestructuras de producción y suministro de energía eléctrica

130

**erabilera bateragarri (4)**

**es** uso compatible

131

**erabilera debekatu (4)**

Eremu baten izaera eta helburu funtzionalarekin bateraezinek izateagatik zona global batean edo erabilera xehatuko zona batean onartu edo baimendu ezin daitekeen erabilera.

**es** uso prohibido

132

### **erabilera erkide (4)**

Jabari publikoko ondasunei dagokien erabilera, herritar guztiek berdin eta inolako bereizketarik gabe egiten dutena. Erabilera erkidea berezia edo orokorra izan daiteke.

**es** uso común

133

### **erabilera erkide berezi (4)**

Jabari publikoko ondasunen erabilera erkidea, arriskuagatik, erabilerearen intentsitateagatik edo antzeko beste gorabehera batengatik inguruabar bereziak dituena. Lizentziapekoa da jabari publikoko ondasunen ohiko erabilera erkide berezia. Lizentzia hori jabari publikoko ondasunen izaerari, horiek lotzeko eta erabilera publikorako irekitzeko egintzei eta xedapen orokorrei egokitzen zaie.

**es** uso común especial

134

### **erabilera erkide orokor (4)**

Jabari publikoko ondasunen erabilera erkidea, inguruabar berezirik gabekoa. Askatasunez egiten da jabari publikoko ondasunen erabilera erkide orokorra, ondasunon izaeraren, horiek lotzeko eta erabilera publikorako irekitzeko egintzen, legeen, erregelamenduen eta gainerako xedapen orokorren barruan.

**es** uso común general

135

### **erabilera global (4)**

Plan orokorrean ezarritako erabilera, zona bakoitzaren xede orokorra definitzeko ezartzen dena. Lurraldearen egitura organikoan edo planaren egiturazko antolamenduan bakarrik eragiten du; aitzitik, ez du eraginik lurzoruaren eta eraikingintzaren araubidean.

**es** uso global

136

### **erabilera industrial (4)**

Sin. industria-erabilera (4)  
Ekonomia-jardueretara bideratutako erabilera, industria-produktuak lortzeko, konpontzeko, mantentzeko, eraldatzeko edo berrerabiltzeko jardueretara bideratua, baita ontziratzerara eta enbalatzera eta hondakinak edo azpiproduktuak suntsitzeko, aprobetxatzeko edo berreskuratzeko jardueretara bideratua ere.

**es** uso industrial

137

### **erabilera pribatu (4)**

Titulartasun pribatuko ondasunetan partikularrek garatzen dituzten jardueretara bideratutako erabilera.

**es** uso privado

138

### **erabilera publiko (4)**

Herritarren atsedenaldira, heziketara, asistentziara eta ongizatera bideratutako erabilera, inolako diskriminaziorik gabe titulartasun publiko edo pribatuko ondasun baten gainean garatzen dena.

**es** uso público

139

### **erabilera publiko estentsibo (4)**

Lurzoru urbanizaezinezarekin lotutako erabilerearen barruan, aisialdira, turismora, heziketara eta ingurune naturala interpretatzera bideratutako erabilera, ingurune fisikoan eragin txikia duena eta ekipamendu esanguratsurik behar ez duena.

**es** uso público extensivo



140

**erabilera publiko  
intentsibo (4)**

Lurzoru urbanizaezinarekin lotutako erabileraren barruan, aisialdira, turismora, heziketara eta ingurune naturala interpretatzera bideratutako erabilera, aisialdirako ekipamenduen bidez ingurune fisikoa egokitzea dakarrena.

**es** uso público intensivo

141

**erabilera xehatu (4)**

Plan orokorrean edo garapen-plan batean modu xehatuan jasotzen den erabilera, zona bakoitzeko erabilera globalekin bateragarritasun-araubidea arautzeko jasotzen dena.

**es** uso pormenorizado

142

**erabilera-aldaketa (4)**

**es** cambio de uso

143

**erauzketa-jardueretarako  
erabilera (4)**

Lurzoru urbanizaezinarekin lotutako erabileraren barruan, lehen sektoreko baliabideen ustiapenera bideratutako erabilera, zehazki baliabide mineralak erauzteko jardueretara eta erauzketarekin zuzenean lotura duten jarduera osagarrietara bideratua. Halaber, erabilera horretan sartzen dira baliabide geologikoen erauzketara eta lehenengo tratamendura bideratutako eraikin eta instalazioak. Aldiz, ez dira erauzketa-jardueretarako erabileratzat hartzen baliabide mineralen prospekzio- eta ikerketa-lanak.

**es** uso de actividades extractivas

144

**erlijio-ekipamendurako  
erabilera (4)**

Gizarte-ekipamenduetarako erabilera, elizan, meskitan, baselizan, kaperan, parrokiari edo antzeko zentro zein establezimendutan garatzen diren gurtzako edo erlijio-heziketako jardueretara bideratua.

**es** uso de equipamiento religioso

145

**erregaiz hornitzeko  
azpiegituratarako erabilera (4)**

Herriak, eraikinak eta ekoizpen- zein biltegitratze-instalazioak gasez hornitzeko eta haietara guztietara gasa garraiatzeko instalazioetara eta jardueretara bideratutako erabilera.

**es** uso de infraestructuras de suministro de combustibles

146

**espazio libreetarako  
erabilera (4)**

Eraikuntzarik gabeko, jabari publikoko eta irispide libreko gunectan garatutako aisia-erabilera; erabilera hori biztanleen atsedendira, aisialdi, bide eta eraikinak babestera eta hiriaren ingurumen-baldintzak eta ezaugarri estetikoak hobetzera dago bideratua. Honako hauek dira espazio libreetako erabileraren modalitateak: lurralde-elementuetarako erabilera, landa-espazio libreetarako erabilera eta hiri-espazio libreetarako erabilera.

**es** uso de espacios libres

147

**etxebizitzarako bizitegi-  
erabilera (4)**

Eraikin- eta sustapen-mota edozein izanda ere, pertsoneri bizitoki iraunkorra ematera bideratutako erabilera.

**es** uso residencial vivienda

148

**garraio-erabilera (4)**

Komunikazio-erabilera, bidaiarien eta salgaien garraioarekin lotutako jardueretara bideratua.

es uso transporte

149

**garraibide-erabilera (4)**

Lurzoru urbanizaezinarekin lotutako erabileraren barruan, azpiegituretara bideratutako erabilera, autobideak, autobiak, errepideak, trenbideak eta instalazio osagarriak barnean hartzen dituenak. Era berean, garraibide-erabileraren barnean sartzen dira pertsonak edo salgaiak garraiatzera bideratutako bestelako bideak, ingurune fisikoan antzeko eragina dutenak.

es uso de vías de transporte

**gizarte-ekipamenduetarako erabilera**

Ik. komunitate-ekipamenduetarako erabilera

150

**hezkuntza-ekipamendurako erabilera (4)**

Gizarte-ekipamenduetarako erabilera, giza heziketa eta heziketa intelektuala emateko jardueretara bideratua. Titulartasun publikoko edo pribatuko araubidean garatzen da, irabazi-asmorik gabe.

es uso de equipamiento docente

151

**hiri-espazio libreetarako erabilera (4)**

Hiri-eremuan kokatuta dauden espazio libre publikoen berezko jardueretara bideratutako erabilera.

es uso de espacios libres urbanos

152

**hirugarren sektoreko erabilera (4)**

Ekonomia-jardueretara bideratutako erabilera: merkataritza-transakzioak egiteko eta zerbitzu pertsonalak, administratiboak, teknikoak, monetarioak eta merkataritzakoak emateko jardueretara bideratuta dago, betiere jarduera horiek industria-erabilerakoen artean sailkatuta ez badaude.

es uso terciario

153

**hondakin solidoen hondakindegietarako eta zabortegetarako erabilera (4)**

Lurzoru urbanizaezinarekin lotutako erabileraren barruan, azpiegituretara bideratutako erabilera, obra-hondakinak eta hiri-hondakin zein industria-hondakin solidoak botatzeko tokietara hain zuzen.

es uso de escombreras y vertederos de residuos sólidos

**hondakin-urak garbitzeko eta arazteko azpiegituretarako erabilera**

Ik. ur zikinak garbitzeko eta arazteko azpiegituretarako erabilera

154

**hondakinak kudeatzeko azpiegituretarako erabilera (4)**

Hiri-hondakin solidoak eta bestelako hondakin-motak biltzeko, tratatzeko eta kudeatzeko instalazioetara eta jardueretara bideratutako erabilera.

es uso de infraestructuras de gestión de residuos

155

**industria eta biltegitratze arriskutsuetarako erabilera (4)**

es uso de industrias y almacenes peligrosos

**industria-erabilera**

Ik. erabilera industrial

156

**ingurumen-hobekuntzarako erabilera (4)**

Lurzoru urbanizaezinarekin lotutako erabileraren barruan, ingurumena babestera bideratutako erabilera. Babestu beharreko gunea jatorrizko egoerara edo egungoa baino orekatuagoa den beste egoera batera bideratzen da tratamendu kulturalaren bidez.

es uso de mejora ambiental

157

**instituzioetako eta zerbitzu publikoetako ekipamendurako erabilera (4)**

Gizarte-ekipamenduetarako erabilera, oinarritzkoak ez diren azpiegitura- edo hornidura-zerbitzuak herritar guztiei zuzenean edo zeharka emateko jardueretara eta instalazioetara bideratua.

es uso de equipamiento institucional y de servicios públicos

158

**irabazizko erabilera (4)**

es uso lucrativo

159

**jolas-, aisialdi- eta ikuskizun-ekipamendurako erabilera (4)**

Gizarte-ekipamenduetarako erabilera, aisialdiarekin, harreman sozialekin, denbora librearekin eta antzekoekin lotutako jardueretara bideratua, betiere jarduera horiek eraikin, lokal edo instalazioetan gauzatzen badira.

es uso de equipamiento recreativo, ocio y espectáculo

160

**kirol-ekipamendurako erabilera (4)**

Gizarte-ekipamenduetarako erabilera, kirola egiteko, irakasteko edo kirol-erakustaldiak egiteko jardueretara bideratua, baita jarduera nagusi horien osagarriak diren jardueretara ere.

es uso de equipamiento deportivo

161

**komunikazio-erabilera (4)**

Komunikaziora eta garraiora bideratutako areetan garatzen diren jarduerak biltzen dituen erabilera; haiez gain, pertsonen egonaldiei eta igaroadiei, salgaiei eta garraio publiko zein pribatuko edozein motatako ibilgailuei bideratutako guneak ere biltzen ditu, bai eta garraiatzeko moduak eta haiek egikaritzeko eta haien zerbitzurako osagai funtzionalak ere. Honako hauek dira komunikazio-erabileraren modalitateak: aireportu-erabilera, bide-sareari atxikitako erabilera, trenbide-erabilera, portu-erabilera eta garraio-erabilera.

es uso de comunicaciones

162

**komunitate-  
ekipamenduetarako  
erabilera (4)**

Sin. gizarte-ekipamenduetarako erabilera (4)

Zuzkiduren edo ekipamenduen erabilera, pertsoneri aisia-, hezkuntza-, kultura-, osasun-, asistentzia- eta ongizate-zerbitzuak emateko jarduerak biltzen dituen; jarduera horiek irabazi-asmorik gabe egikaritzen dituzte erakunde publikoek edo pribatuek.

es uso de equipamientos comunitarios

163

**kontserbazio-erabilera (4)**

Lurzoru urbanizaezinarekin lotutako erabileraren barruan, ingurumena babestera bideratutako erabilera. Gizakiak ukitu gabeko gune naturaletan edo izaera zientifikoagatik edo kulturalagatik soilik ukitutakoetan, gune horien zeaugarriak eta uneko egoera mantenduz babesten da ingurumena, eta gainerako kasuetan, uneko erabilerarekin jarraituz eta garapen jasangarria errespetatuz.

es uso de conservación

164

**landa-espazio libreetarako  
erabilera (4)**

Herritarren aisialdira eta lasaialdira bideratuta dauden eta landa-eremuan kokatuta dauden espazio libre publikoen berezko jardueretara bideratutako erabilera.

es uso de espacios libres rurales

165

**lehendik zeuden  
biztanleguneetan  
oinarritutako  
hazkundeetarako erabilera (4)**

es uso de crecimientos apoyados en núcleos preexistentes

166

**lehendik zeuden  
biztanleguneetan oinarritzen  
ez diren garapenetarako  
erabilera (4)**

es uso de desarrollos no apoyados en núcleos preexistentes

167

**lurpeko lineetarako  
erabilera (4)**

Lurzoru urbanizaezinarekin lotutako erabileraren barruan, azpiegituretara bideratutako erabilera, honako hauek barnean hartzen dituena: gasa, petrolioia eta produktu eratorriak garraiatzeko edo banatzeko sareak, ura banatzeko eta garbitzeko sareak, telekomunikazio-sareak eta bestelako lurpeko sareak zein instalazio osagarriak.

es uso de líneas subterráneas

168

**lurralde-elementuetarako  
erabilera (4)**

Espazio libreetarako erabilera, izaera naturala gailentzen den lurraldeko elementu naturalekin lotura izan dezaketen jardueretara bideratua.

es uso de elementos territoriales

169

**lurzoru urbanizaezinarekin lotutako erabilera (4)**

Lurzoru urbanizaezinean garatzen diren jarduerak biltzen dituen erabilera, lurraldearen ekoizpen-ustiapenak lehenetsuneko xede dituen. Egungo eta etorkizuneko erabilera horiek EAeko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako ingurune fisikoaren gidalerroan daude definituta. Bost multzotan sailka daitezke lurzoru urbanizaezinarekin lotutako erabilerean modalitateak: ingurumenaren babesa, aisia eta aisialdia, lehen sektoreko baliabideen ustiapena, azpiegiturak eta hirigintza-hazkundeak.

**es** uso relacionado con el suelo no urbanizable

170

**lurzoru urbanizaezinean bakartutako etxebizitzarako erabilera (4)**

**es** uso de vivienda aislada en suelo no urbanizable

171

**lurzoruen erabilera (4)**

**es** uso del suelo

172

**nekazaritza-erabilera (4)**

Lurzoru urbanizaezinarekin lotutako erabilerean barruan, lehen sektoreko baliabideen ustiapenera bideratutako erabilera, zehazki lurra prestatzeko jardueretara bideratua, laboreak lortzeko helburua duena.

Nekazaritzarako erabilerean barruan daude hauek ere: uzta biltzeko, hautatzeko eta sailkatzeko jarduerak; ur-hornidura; ur-aprobetxamenduaren intentsitatea handitzera bideratutako jarduerak; lan-tresnak, nekazaritza-lanabesak eta nekazaritza-produktuak biltegitzera eta kontserbatzera bideratutako eraikuntzak; nekazaritza-produktuak ekoiztea, erazte eta sailkatzea; nekazaritza-produktuak merkaturatzeko beharrezkoa den lehenengo eraldaketa edo artisau-eraldaketa; ureztatze edo berotegi-nekazaritzarako beharrezkoak diren obrak eta instalazioak, eta nekazariaren bizitoki diren eta nekazaritza-ustiapenari lotuta dauden familia-etxebizitzak.

**es** uso de agricultura

173

**nekazaritza-industrietarako erabilera (4)**

Lurzoru urbanizaezinarekin lotutako erabilerean barruan, lehen sektoreko baliabideen ustiapenera bideratutako erabilera. Zehazki, erabilera hauek sartzen dira: abeltzaintza-produkzio intentsiboa etengabeko estabulazioan egiteko eraikuntzak eta lehen eraldaketako nekazaritza-elikagaien industriak, zuzenean ustiategi bati lotu gabeak.

**es** uso de industrias agrarias

174

**onura publikoko eta gizartearen intereseko eraikinetarako erabilera (4)**

**es** uso de edificios de utilidad pública e interés social

175

**osasan-ekipamendurako erabilera (4)**

**Sin.** ekipamendu sanitarioako erabilera (4)

Gizarte-ekipamenduetarako erabilera, mediku- edo kirurgia-zerbitzuetako eta ospitale-zerbitzuetako jardueretara bideratua, baita zerbitzu horiei buruzko jarduera hauetara ere: orientazioa, prebentzioa, informazioa eta administrazioa.

**es** uso de equipamiento sanitario

176

**portu-erabilera (4)**

**es** uso portuario

177

**sustapeneko edo interes publikoko jarduera ekonomikorako lurzoru (4)**

**es** suelo para actividad económica de fomento o interés público

178

**telekomunikazio- eta seinalizazio-azpiegituretarako erabilera (4)**

Telekomunikazio-seinaleak igortzeko, garraiatzeko eta jasotzeko, kostaldean seinaleak eta balizak jartzeko eta aireko segurtasuna bermatzeko instalazioetara eta jardueretara bideratutako erabilera.

**es** uso de infraestructuras de telecomunicaciones y señalización

179

**trenbide-erabilera (4)**

Komunikazio-erabilera, pertsonen eta salgaien trenbideko garraioari lotutako jardueretara bideratua.

**es** uso ferroviario

180

**ur zikinak garbitzeko eta arazteko azpiegituretarako erabilera (4)**

**Sin.** hondakin-urak garbitzeko eta arazteko azpiegituretarako erabilera (4) Herrietako eta eraikinetako hondakin-urak eta euri-urak drainatzeko, husteko eta arazteko instalazioetara eta jardueretara bideratutako erabilera.

**es** uso de infraestructuras de saneamiento y depuración de aguas residuales

181

**ura hartzeko, urez hornitzeko eta ura banatzeko azpiegituretarako erabilera (4)**

Ura hartzeko, arazteko eta herriak eta eraikinak urez hornitzeko instalazioetara eta jardueretara bideratutako erabilera.

**es** uso de infraestructuras de captación, abastecimiento y distribución de agua

182

**zuzkidura-bizitoki (4)**

**es** alojamiento dotacional

183

**zuzkidura-bizitokirako erabilera (4)**

Gizarte-ekipamenduetarako erabilera, premia larrian dauden kolektibo sozialen aldi baterako bizitoki-beharrei erantzutera bideratua. Titulartasun publikoko araubidean garatzen da, irabazi-asmorik gabe.

**es** uso de alojamiento dotacional

**184****zuzkidura-erabilera (4)**

Herritarrei zerbitzuak emateko jardueretara bideratutako erabilera, hirigintza-antolamenduko xedeak betetzeko lurralde-eremu jakin batean ezartzen dena.

**es** uso dotacional

**185****zuzkidurarako bizitegi-erabilera (4)**

Zuzkidura-erabilera publikoko eraikinetan edo establezimenduetan edo zuzkidura-bizitokiko eraikinetan bizi behar duten pertsoneri aldi baterako bizitokia edo bizitoki iraunkorra ematera bideratutako erabilera.

**es** uso residencial dotacional

### 3. HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUA

#### 3.1. Eraikigarritasuna

186

**123/2012 Dekretua, uztailaren 3koa, Hirigintzako Estandarrei buruzkoa (4)**

es Decreto 123/2012, de 3 de julio, de Estándares Urbanísticos

187

**antolamendu xehatuaren estandar (4)**

es estándar de ordenación pormenorizada

188

**aprobetxamendu-lagapen (4)**

es cesión de aprovechamiento

189

**babes publikoko etxebizitzaren estandar (4)**

es estándar de vivienda de protección pública

190

**batez besteko eraikigarritasun (4)**

Eremuko eraikigarritasun haztatu osoa eremu horretako azalera osoarekin zatituz lortzen den eraikigarritasuna.

es edificabilidad media

191

**berroneratze- eta birgaitze-eremu (4)**

es ámbito de regeneración y rehabilitación

192

**bizitegi-zuzkidura babestu (4)**

es dotación residencial protegida

193

**egiturazko antolamenduaren estandar (4)**

es estándar de ordenación estructural

194

**egiturazko hirigintza-antolamendu (4)**

Egiturazko alderdi nagusiez arduratzen den hirigintza-antolamendua. Bertan sartzen dira, besteak beste: udal-mugarte osoan hiri-bilakaerarako eta lurzorua okupaziorako estrategia zehaztea; udal-mugarte osoko lurzoria sailkatzea; lurzoruaren kalifikazio globala egitea eta erabilerak bereiztea; plangintzaren eta programazioaren epeak finkatzea; sistema orokorren sarea zehaztea; ingurumena eta elementu natural nahiz artifizialak babesteko neurriak ezartzea; babes ofizialeko etxebizitzaren araubidea zehaztea eta lurzoruak, areak eta sektoreak mugatzeko irizpideak jartzea.

es ordenación urbanística estructural

195

**eraikigarritasun fisiko (4)**

Sin. eraikigarritasun gordin (4)  
Hirigintza-antolamenduak lurralde-eremu jakin baterako ezarritako sabai-azalera osoa, eraikia edo eraiki gabea, lurgainean zein lurpean.

es edificabilidad física; edificabilidad bruta

**eraikigarritasun gordin**

Ik. eraikigarritasun fisiko



196

**eraikigarritasun haztatu (4)**

Irabaziko erabileren eragin-balio osoa zehazten duen eraikigarritasuna.

Eraikigarritasun haztatua kalkulatzeko erabilera ezberdinak homogeneizatzen dira; horretarako, berezko erabileraren lurzoru urbanizatuaren eragin-balioa hartzen da unitate gisa eta gainerakoiei haiei dagokien eragin-balioen arabera koefizienteak ezartzen zaizkie.

**es** edificabilidad ponderada

197

**eraikigarritasun jabegarri (4)**

Lurzoru-jabearen partaidetza-  
eskubidea, hirigintza-ekintzen ondorioz sortutako hirigintza-gainbalioaren zati bat jabetzan eskuratzekoa.

**es** edificabilidad apropiable

198

**eraikigarritasun-estandar (4)**

**es** estándar de edificabilidad

199

**haztapan-koefiziente (4)**

**es** coeficiente de ponderación

200

**hirigintza-antolamendu (4)**

Hirigintzaren bidez, espazioaren eta denboraren aldetik, lurzoruaren hirigintza-zehaztapanak antolatzea.

**es** ordenación urbanística

201

**hirigintza-antolamendu xehatu (4)**

Egiturazko hirigintza-antolamenduak lantzen ez dituen alderdi xeheagoez arduratzen den hirigintza-antolamendua. Bertan sartzen dira, besteak beste: tokian tokiko sistemak definitzea eta sistema horiek plan orokorrean definituriko sistema orokorren sarearekin lotzea; programazio bakarra izan beharreko jarduketa integratuak mugatzea plangintza orokorrean definituta dauden hiri-lurzoru finkatugabeko areetan eta lurzoru urbanizagarriko sektoreetan; lurzoria hiri-lurzoru finkatu gisa eta hiri-lurzoru finkatugabe gisa sailkatzea; jarduketa bakartuko araubidearen menpean eraiki daitezkeen orubeak eta lurzatiak zehaztea hiri-lurzoruan; hirigintzako eraikigarritasun fisiko xehatuak zehaztea; erabileren zerranda egitea; eraikuntzaren osagaiak eta oinarritzko elementuak definitzea; lerrokadurak eta sestrak zehaztea; antolamendutik kanpo geratuko diren etxebizitza eta eraikuntzak banaka identifikatzea; xehetasun-azterketak idazteko irizpide eta baldintzak finkatzea, eta partzelazioa.

**es** ordenación urbanística pormenorizada

202

**hirigintza-eraikigarritasun (4)**

Irabaziko erabilerari edo jarduerari dagokien eraikigarritasun fisikoa, hirigintza-antolamenduak lurralde-eremu jakin baterako ezarria. Kanpoan gelditzen da eremu horretarako lehendik dauden edo aurreikusita dauden zuzkidura publikoan eraikigarritasun fisikoa.

**es** edificabilidad urbanística

203

### **hirigintza-estandar (4)**

Zuzkidurei, ekipamenduei, eraikigarritasun-mugei, eraikigarritasun babestuari edo zuzkidura-bizitokiei buruzko legezko edo erregelamenduzko zehaztapena, hirigintza-plangintzarako loteslea eta murriztu ezina dena.

**es** estándar urbanístico

204

### **ordezko kalte-ordain (4)**

**es** indemnización sustitutoria

205

### **sistema orokor (4)**

**es** sistema general

206

### **sistema orokorren zuzkidura-sare (4)**

Plangintza orokorrak ezarritako egiturazko antolamendua osatzen duten zuzkidura-elementuen multzoa; bereziki, espazio libreak, ekipamendu kolektibo publikoak, ekipamendu kolektibo pribatuak eta komunikazio-azpiegiturak eta -sareak, haien funtzionalitateek eta zerbitzuek plangintza-eremu bat baino gehiago hartzen dutenean.

**es** red dotacional de sistemas generales

207

### **tokiko sistema (4)**

**es** sistema local

208

### **tokiko sistemen zuzkidura-sare (4)**

Antolamendu xehatua definituta dagoen zuzkidura-elementuen multzoa; bereziki, espazio libreak, ekipamendu kolektibo publikoak, azpiegiturak, komunikazio-sareak eta ekipamendu kolektibo pribatuak. Area edo sektore jakin bateko biztanleen erabilera eta zerbitzu nagusienera muga daiteke haren funtzioa.

**es** red dotacional de sistemas locales

209

### **zuzkidura (4)**

Lurralde-antolamenduaren oinarritzko egitura zehazten duten hirigintza-elementuetako bakoitza. Lursaila, eraikina edo instalazioa izan daiteke. Plangintzan horrela zehaztutako elementuen helburua zerbitzu publikoak eta erabilera kolektiboak ezartzea da, eta, horrela, hiriguneetan bizi-kalitatea hobea izateko herritarren eskubidea ziurtatzea. Azken jabetzaren arabera, publikoa edo pribatua izan daiteke; adibidez, plangintzak aurreikus dezake kiroldegi publiko bat edo merkataritza-zentro pribatu bat egitea.

**es** dotación

210

### **zuzkidura lekualdatze (4)**

**es** traslado de dotación

211

**zuzkidura pribatu (4)**

Lurralde-antolamenduaren oinarritzko egitura zehazten duten hirigintza-elementuetako bakoitza, jabetza pribatukoa. Lursaila, eraikina edo instalazioa izan daiteke. Plangintzan horrela zehaztutako elementuen helburua zerbitzu publikoak eta erabilera kolektiboak ezartzea da, eta, horrela, hiriguneetan bizi-kalitatea hobea izateko herritarren eskubidea ziurtatzea.

**es** dotación privada

212

**zuzkidura publiko (4)**

Lurralde-antolamenduaren oinarritzko egitura zehazten duten hirigintza-elementuetako bakoitza, jabetza publikokoa. Lursaila, eraikina edo instalazioa izan daiteke. Plangintzan horrela zehaztutako elementuen helburua zerbitzu publikoak eta erabilera kolektiboak ezartzea da, eta, horrela, hiriguneetan bizi-kalitatea hobea izateko herritarren eskubidea ziurtatzea.

**es** dotación pública

213

**zuzkidura-atxikipen (4)**

**es** adscripción de dotaciones

214

**zuzkidura-bizitokiaren estandar (4)**

**es** estándar de alojamiento dotacional

215

**zuzkidura-estandar (4)**

**es** estándar dotacional

216

**zuzkidura-sare (4)**

Zuzkidura publikoak, hau da, irabazizkoak ez diren erabilerak (espazio libreak, parkeak, ospitaleak, araztegiak, heziketa-zentroak...) hartzen dituzten lursailen multzoa.

**es** red dotacional

217

**zuzkidura-taldekatze (4)**

Eraikitako zuzkidura-lursailak eta lurzorua hiri-lurzoru finkatu nahiz finkatugabeetako areetan biltzea.

**es** agrupación dotacional

218

**zuzkiduraren konpentsazio (4)**

**es** compensación de dotación

### 3.2. Hirigintza-antolamenduko tresnak

219

#### **21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa (4)**

Ingurumenean ondorio adierazgarriak eragin ditzaketen planen, programen eta proiektuen ingurumen-ebaluazioa arautzeko oinarriak ezartzen dituen legea. Horrenbestez, Estatuaren lurralde osoan ingurumenaren babes-maila handia bermatzen du, garapen jasangarria sustatzea helburu hartuta.

**es** Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de Evaluación Ambiental

220

#### **antolamendu xehatuko plan (4)**

Hirigintza-antolamendu xehatuaren arloan sartzen den plana. Plan orokorraren edo garapeneko planaren arau-lerruna izan dezake, eta udalerrirako aurreikusitako oinarritzko egiturak egikaritzeko prozedurak eta elementuak definituz arduratzen da. Antolamendu xehatuko planak dira plan partzialak, hiri-antolamenduko plan bereziak eta bestelako plan bereziak.

**es** plan de ordenación pormenorizada

221

#### **aurretizko azterketa (4)**

Hirigintza-planak idatzi edo horretarako egokiak diren bestelako ekintzak gauzatu aurretik, administrazioek eta erakunde publiko interesdunek egin eta onar dezaketen azterketa. Honako hauek dira azterketa horren helburuak: hirigintza-jarduketa bat egiteko beharra edo bidezkontasuna identifikatzea, haren eremua eta ezaugarriak zehaztea, udalerrri-izaerakoa den edo udalerriaz gairikoa den eragina edo interesa duen identifikatzea eta hura antolatzeko edo haren proiektua egiteko tresna egokienak definitzea.

**es** estudio previo

222

#### **babesteko eta kontserbatzeko plan berezi (4)**

Elementu naturalak edota artifizialak babesteko arauen bidez plan orokorretan zehaztutako antolamendua osatzen duen plan berezia. Babesten eta kontserbatzen diren elementuak izan daitezke, besteak beste, itsasertza, paisaia, hiriguneak edo landaguneak, instalazioak, baratzeak, landaketak, basoak, ibaietako ekosistemak eta ondasun kulturalak.

**es** plan especial de protección y conservación

223

**egikaritze-laburpen (4)**

Hirigintza-antolamenduko tresnak onesteko edo aldatzeko prozeduretan jendaurrean jartzen den dokumentazioa, honako puntu hauek jasotzen dituena: a) proiektaturiko antolamenduak indarrean dagoen antolamenduan aldatzen dituen eremuen mugatzea; b) halakorik balego, hirigintza-antolamendua edo egikaritze-prozedurak edo hirigintzan esku hartzeko prozedurak zer eremutan eteten diren, eta etendura horien epeak.

es resumen ejecutivo

224

**egiturazko antolamenduko plan (4)**

Egiturazko hirigintza-antolamenduaren arloan sartzen den plana. Plan orokorraren arau-lerruna izaten du beti, eta plangintzak proposatutako eta onartutako lurralde-ereduaren oinarrizko egitura finkatzeaz arduratzen da. Egiturazko antolamenduko planak dira hiri-antolamenduko plan orokorra, plangintza orokorra bateragarri egiteko plana eta sektorizatzeko-plana.

es plan de ordenación estructural

225

**ekimen partikularreko plangintza (4)**

Herritarrek beren ekimenez egiten duten plangintza. Plangintza horren bidez, lurzoru-jabeek eta partikularrek antolamenduko eta kudeaketako tresnak idatz ditzakete eta tresna horiek izapidetzeko aurkeztu.

es planeamiento de iniciativa particular

226

**ekimen publikoko plangintza (4)**

Administrazioak ofizioz egiten duen plangintza. Hirigintza-antolamenduko tresnen instrukzioa egiteko administrazio eskudunak tresna horien onespren-prozedurari ofizioz ekiten dio, baina haien behin betiko onesprena beste administrazio baten organo bati dagokio.

es planeamiento de iniciativa pública

227

**eraikingintza-ordenantza (4)**

es ordenanza de edificación

228

**eraikuntza-ordenantza (4)**

es ordenanza de construcción

229

**espazio libre (4)**

Erabilera kolektiboetara edo herritarren aisiara bideratuta egoteagatik plangintzak eraikinik gabekotzat zehazten duen espazioa.

es espacio libre

230

**etapa-plan (4)**

Aurreikusitako jarduketa guztiak egikaritzeko sekuentzia edo hurrenkera ezartzen duen plana. Etapa-planak denbora-faktorea eransten du hirigintza-plangintzan, eta plana denborarik gabeko proiektu tekniko hutsa izatea eragozten du.

es plan de etapas

231

**garapeneko plan (4)**

Plangintza orokorrean ezarritako zehaztasunak osatzen dituen plana, hala nola plan partziala, plan berezia eta xehetasun-azterketa.

es plan de desarrollo

232

### **herritarrek parte hartzeko programa (4)**

Egiturazko antolamenduaren plangintzako edozein figura formulatzen, aldatzen edo berrikusten hasteko erabakiarekin batera aurkeztu beharreko programa. Programa hori udalerriaren ezaugarrien arabera izaten da, eta herritarrek eta elkarteek plan orokorrean parte hartzeko duten eskubidea ahalbidetzeko helburuak, estrategiak eta mekanismoak ezartzen dira bertan.

**es** programa de participación ciudadana

233

### **hiri-antolamenduko plan berezi (4)**

Plan orokorraren egiturazko antolamendua garatzeko helburua duen plana; horretarako, plan orokorrak egiturazko antolamendua atzeratzea baimentzen duen hiri-lurzoruan antolamendu xehatua ezartzen du. Halaber, plan orokorrean hiri-lurzoruarentzat zehaztutako antolamendu xehatua aldatzeko ere erabil daiteke.

**es** plan especial de ordenación urbana

234

### **hiri-antolamenduko plan orokor (4)**

Hirigintza-antolamenduaren oinarritzko tresna. Nahitaez jaso behar ditu udalerrri osoaren egiturazko antolamendua eta plan orokorrak hiri-lurzoru finkatuaren kategorian sartu duen hiri-lurzoruaren antolamendu xehatua, eta aukerakoa du lurzoru urbanizagarri sektorizatuaren eta plan orokorrean hiri-lurzoru finkatuaren kategorian sartu gabeko hiri-lurzoruaren antolamendu xehatua jasotzea.

**es** plan general de ordenación urbana

235

### **hiri-antolamenduko plan partzial (4)**

Antolamendu xehatuko tresna, plan orokorrak edo dena delako sektorizatze-planak lurzoru urbanizagarri modura zehazturiko sektore jakin bat xeheki antolatzea helburu duena.

**es** plan parcial de ordenación urbana

236

**hiri-berrikuntzako plan berezi (4)**

Antolamenduaren funtsezko egitura aldatu gabe eta hirigintza-erakigarritasunean eraginik izan gabe jarduketa zehatzak egiten dituen antolamendu xehatuko tresna; jarduketa zehatz horiek izan daitezke, besteak beste, hiri-lurzorua deskongestionatzea, zuzkidura publikoak eta ekipamendu kolektibo pribatuak sortzea, auzoak saneatzea, hiria berroneratzea eta birgaitzea, barne-erreforma egitea, mugigarritasun-arazoak edo estetika-arazoak konpontzea eta ingurumena edo zerbitzu publikoak hobetzea.

**es** plan especial de renovación urbana

237

**hirigintza-antolamenduko plan (4)**

Hirigintza antolatzeke tresna; bi mailetan ezartzen du hirigintza-antolamendua: egiturazko antolamendua eta antolamendu xehatua.

**es** plan de ordenación urbanística

238

**hirigintza-antolamenduko plana berrikuste (4)**

Hiri-antolamenduko planen edukia osoki aldatzeko sistema. Ez da aldaketa puntual bat, plan guztia bere osotasunean aldatzeko sistema bat baizik; lurraldearen egitura orokor eta organikoari edota lurzoruaren sailkapenari buruz irizpide berriak hartzea da, lurralde-eredu desberdin bat aukeratu delako, antolamenduan funtsezko eragina duten bestelako inguruabar berriak sortu direlako (demografikoak edo ekonomikoak) edo planaren gaitasuna irauungi delako.

**es** revisión del plan de ordenación urbanística

239

**hirigintza-katalogo (4)**

Hirigintza-antolamenduaren tresna osagarria, hirigintza-antolamenduan babestu beharreko ondasun naturalak edo artifizialak zehazten eta haien inbentarioa egiten duena.

**es** catálogo urbanístico

240

**hirigintza-lerrokadura (4)**

Zona eraikigarrien eta eraikiezinen arteko muga egiten duen lerroa. Lerro horren arabera zehazten eta mugatzen dira kaleak, plazak, barne-patioak eta hiriaren eremu guztia.

**es** alineación urbanística

241

### **hirigintza-plangintzaren aurrerakin (4)**

Planak eta arauak idatzi aurretik egiten diren prestakuntzako idazkiak; plan orokorra egiteko herri-administrazio eskudunak egiten ditu ezarriko den antolamenduaren irizpideak, helburuak, aukerak eta proposamen orokorrak definitzeko, eta plan orokorra lehenengoz egin behar denean edo indarrean dagoen bat osorik edo partzialki berrikusi behar denean orientabide gisa balio izateko.

**es** avance de planeamiento urbano

242

### **hirigintza-zedula (4)**

Administrazio-dokumentua edo ziurtagiria, udalerrri bateko finketako, orubeetako edo lurzatietakoko hirigintza-inguruabarrak egiaztatzen dituena.

**es** cédula urbanística

243

### **ingurumen-adierazpen estrategiko (4)**

Ingurumen-organoaren nahitaezko txosten erabakigarria, ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoaren azken emaitza dena. Ingurumen-alderdien integrazioa ebaluatzen du planaren edo programaren azken proposamenen.

**es** declaración ambiental estratégica

244

### **ingurumen-azterketa estrategiko (4)**

Sustatzaileak egindako azterketa, planaren edo programaren zati dena. Plana edo programa aplikatzeak ingurumenean izan ditzakeen eragin nabarmenak eta teknikoki eta ingurumenaren aldetik bideragarriak diren arrazoizko aukerak identifikatzen, deskribatzen eta ebaluatzen ditu, planaren edo programaren aplikazioak ingurumenean sor ditzakeen kalteak saihesteko edo txikiagotzeko.

**es** estudio ambiental estratégico

245

### **ingurumen-ebaluazio (4)**

Administrazio-prozedura instrumentala, planek, programek eta proiektuek ingurumenean izan ditzaketen eragin nabarmenak aztertzen dituena. Ingurumen-ebaluazioak barnean hartzen ditu ingurumen-ebaluazio estrategikoa eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa.

**es** evaluación ambiental

246

### **ingurumen-ebaluazio estrategiko (4)**

Planetan eta programetan ingurumen-alderdiak integratzen direla segurtatzen duen prozesua.

**es** evaluación ambiental estratégica

247

### **ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunt (4)**

**es** evaluación ambiental estratégica ordinaria

248

### **ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatu (4)**

**es** evaluación ambiental estratégica simplificada



249

**ingurumen-inpaktuaren adierazpen (4)**

Ingurumen-organoaren nahitaezko txosten erabakigarria, ingurumen-inpaktuaren ohiko ebaluazioaren azken emaitza dena. Ingurumen-alderdiak proiektuan zenbateraino integratu diren ebaluatzen du, eta erabakitzen du zer baldintza ezarri behar diren ingurumena eta natura-baliabideak egoki babesteko proiektua egikaritzen eta ustiatzen den bitartean eta, hala badagokio, eraisteko eta botatzeko garaian.

**es** declaración de impacto ambiental

250

**ingurumen-inpaktuaren azterketa (4)**

Sustatzaileak egindako dokumentua, proiektuak ingurumenean izan ditzakeen eragin nabarmenak ebaluatzeko beharrezko informazioa jasotzen duena eta eragin horiek saihesteko edo txikiagotzeko erabaki egokiak hartzeko aukera ematen duena.

**es** estudio de impacto ambiental

251

**ingurumen-inpaktuaren ebaluazio (4)**

Proiektu, jarduera edo obra bat egiteak ingurumenean duen eragina zenbaterainokoa den jakiteko eta zuzentzeko azterketa eta sistema teknikoek multzoa.

**es** evaluación de impacto ambiental

252

**ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunt (4)**

**es** evaluación de impacto ambiental ordinaria

253

**ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatu (4)**

**es** evaluación de impacto ambiental simplificada

254

**ingurumen-inpaktuaren txosten (4)**

Ingurumen-organoaren nahitaezko txosten erabakigarria, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren azken emaitza dena.

**es** informe de impacto ambiental

255

**ingurumen-txosten estrategiko (4)**

Ingurumen-organoaren nahitaezko txosten erabakigarria, ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren azken emaitza dena.

**es** informe ambiental estratégico

256

**irismeneko dokumentu**

Ingurumen-organoaren erabakia, sustatzaileari zuzendua, ingurumen-azterketa estrategikoak eta ingurumen-inpaktuaren azterketak izan beharreko zabaltasuna, xehetasun-maila eta zehaztapen-gradua mugatzen dituena.

**es** documento de alcance

257

**jarraipen-txosten (4)**

Zaintza- edo kontrol-dokumentua, ingurumenaren eta ekonomiaren jasangarritasun-txostenei buruzko plana onestean adostutako neurriak denboran zehar beteko direla bermatzen duena.

**es** informe de seguimiento

258

### **plan (4)**

Hirigintzako tresna arauemailea, testuez, planoez eta antolamendu juridikoko gainerako arauekin bereizten diren beste elementu batzuez osatua.

**es** plan

259

### **plan berezi (4)**

Antolamendu xehatuko tresna, bi esparru-mota har ditzakeena: a) udalerrri osoa edo haren zati bat, lurzoru-mota bat edo gehiago barne hartuta; b) plangintza orokorrak definitutako esparru jakin bat edo area bat, edo plan bereziak berak bere xedearekin bat etorri zehaztutako bat.

**es** plan especial

260

### **plan berezi sektorial (4)**

Eusko Jaurlaritzako edo foru-administraziooko sail baten sektore-eskumenetan oinarritzen den plan berezia.

**es** plan especial sectorial

261

### **planaren behin betiko onespen (4)**

Hirigintza-organo eskudunaren egintza, plana egiteko administrazio-prozedura amaitzen duena.

**es** aprobación definitiva del plan

262

### **planaren behin-behineko onespen (4)**

Hasierako onespena erabaki duen organoaren egintza: plana behin-behinean onartzen du, aurkeztu diren alegazioak eta egindako txostenak ikusi eta bidezkoak diren aldaketak sartu eta gero.

**es** aprobación provisional del plan

263

### **planaren hasierako onespen (4)**

Hirigintza-organo eskudunaren egintza: landutako plana aztertzen du, prozedurako hurrengo urratsekin jarraitzeko bidea hasiz.

**es** aprobación inicial del plan

264

### **planaren onespen baldintzatu (4)**

Hirigintza-organo eskudunaren egintza: plana onesteko baldintza gisa planeko zehaztapenetan aldaketak egin beharra ezartzen du; dena dela, ezin du edukiaren funtsean eragin.

**es** aprobación condicionada del plan

265

### **planaren onespen partzial (4)**

Hirigintza-organo eskudunaren egintza: plangintza-tresna zati batean behin betiko onartzen du, eta gainerako zatian ukatu edo eten egiten du.

**es** aprobación parcial del plan

266

### **plangintza orokorra bateragarri egiteko plan (4)**

Egiturazko hirigintza-antolamenduko tresna, udalerrietako hirigintza-plan orokorrak koordinatzeko eta bateragarri egiteko udalerrri batek baino gehiagok adosten dutena. Udalerrri horietako lurralde mugakideetan hirigintza-lanak egiteko adosten da, lurralde-antolamendu nagusi bat ez dagoenean udalerrri horietako plan orokorrak koordinatzeko.

**es** plan de compatibilización del planeamiento general

267

**plangintzako arau osagarriak (4)**

Espainiako lurraldeko hirigintza-plangintza garatzeko tresnak. Plan orokorretan aurreikusitako gabeko alderdiak edo plan horiek behar bezala garatu gabekoak arautzea dute helburu.

**es** normas complementarias del planeamiento

268

**plangintzako arau subsidiarioak (4)**

Espainiako lurraldeko hirigintza-plangintza garatzeko tresnak. Honako helburu hauetako bat dute: a) probintzia osoarentzako edo haren zati batentzako izaera orokorreko araudia ezartzea, lurzoruaren babesari eta aprobetxamenduari, hirigintzari eta eraikintzari buruz. Plan orokorrik edo udal-izaerako arau subsidiariorik ez duten udalerrietan aplika daiteke araudi hori; b) plan orokorrik ez duten udalerriek lurralde horretarako hirigintza-antolamendu zehatza definitzea.

**es** normas subsidiarias de planeamiento

269

**plangintzaren prestamengintza (4)**

Hiri-plangintzako lanen arrakasta ziurtatzeko egiten den egintza. Horrelako egintzen artean daude: batetik, kasu bakoitzean behar diren hirigintzako tresnak berak idazteko lana errazten dutenak, eta, bestetik, egiteko dagoen plangintza berria indarrean sartu artean hirigintza-egoera bere horretan mantentzen laguntzen dutenak.

**es** acto preparatorio de planeamiento

270

**saneamendu-plan (4)**

Osasungarritasuneko, higieneko eta segurtasuneko baldintzak hobetzeko egiten diren obrei buruzko plan berezia.

**es** plan de saneamiento

271

**sektorizatze-plan (4)**

Egiturazko hirigintza-antolamenduko tresna, lurzoru urbanizagarri sektorizatugabe gisa sailkatutako lursailen hirigintza eraldaketa helburu duena.

**es** plan de sectorización

272

**sestra (4)**

Eraikuntzak edota urbanizazioak har dezakeen oinarria definitzen duen lerro topografikoa.

**es** rasante

273

**udal-plangintzako aholkubatzorde (4)**

Udal-plangintzako aholkurako eta eztabaidarako toki-organoa; hirigintza-planak egiteko, izapidetzeko eta onartzeko prozeduran itun sozialerako funtzioak betetzen ditu. Plan orokorrak behin betiko onartzeko eskumena duten udalerrietan nahitaezkoa da batzorde hau eratzea.

**es** consejo asesor del planeamiento municipal

274

**urbanizazio-ordenantza (4)**

**es** ordenanza de urbanización

275

**xehetasun-azterketa (4)**

Hirigintza-antolamenduko tresna, edozein lur-motatan antolamendu xehatuaren zehaztapenak osatzea edo egokitzea helburu duena.

**es** estudio de detalle

### 3.3. Hirigintza-hitzarmenak, balioespenak eta ondare-erantzukizuna

276

#### **antzinatasunagatiko balio-galera (4)**

Denboraren eraginez materialek izan duten degradazioagatik eta kalitate-galeragatik higiezin batek ezaugarri berak dituen beste berri batekin konparatuta duen balio-galera.

es depreciación por antigüedad

277

#### **balioespen-espeditente (4)**

es expediente de valoración

278

#### **baterako tasazio (4)**

es tasación conjunta

279

#### **berrezarpen-balio garbi (4)**

Balio garbia edo uneko balioa; berrezartze-balio gordinari balioespen-datan antzinatasunaren eta kontserbazio-egoeraren ondorioz ondasunak duen balio-galera kenduta lortzen da.

es valor de reposición neto

280

#### **berrezarpen-balio gordin (4)**

Balioespen-datan ezaugarri berak dituen beste ondasun higiezin bat eraikitzeko beharrezkoak diren inbertsioen batura.

es valor de reposición bruto; valor de reposición a nuevo

281

#### **berrezarpen-metodo (4)**

Balioespen-metodoa, ondasun baten balioa antzeko ezaugarriak dituen beste ondasun baten berrezartze-kostuaren arabera finkatzen duena. Berrezarpen-kostua egungo teknikak eta kalitateak erabilia finkatzen da, eta balioa jaisten zaio balioetsi beharreko ondasunaren antzinatasuna eta kontserbazio-egoera kontuan hartuta. Landa-lurzoruan erabiltzen da, ustiapenari lotuta ez dauden eraikinek, eraikuntzek eta instalazioek lurzorutik berezita duten balioa zehazteko.

es método de reposición

282

#### **eragile birgaitzailearen hitzarmen (4)**

Jabeak birgaitze-epreak bete ez dituelako eragile birgaitzailearen eta administrazio jardulearen artean sinatutako hitzarmena; birgaitze-programa eragile birgaitzaileari adjudikatzen zaio hitzarmenaren bidez.

es convenio del agente rehabilitador

283

#### **eragile eraikitzailearen hitzarmen (4)**

Jabeak eraikitze-epreak bete ez dituelako eragile eraikitzailearen eta administrazio jardulearen artean sinatutako hitzarmena; eraikingintza-programa eragile eraikitzaileari adjudikatzen zaio hitzarmenaren bidez.

es convenio del agente edificador

284

**eraikigarritasun-koefiziente (4)**

Lursail baten eraikigarritasun-intentsitatea neurtzeko balio duen koefizientea; lursail horren lurzorua metro koadro bakoitzeko zenbat metro koadro eraiki daitezkeen adierazten du.

**es** coeficiente de edificabilidad

285

**hirigintza antolatzeko hitzarmen (4)**

Indarrean dagoen plangintzan egin daitezkeen aldaketen edukia zehaztea xede duen hitzarmena.

**es** convenio de ordenación urbanística

286

**hirigintza egikaritzeko hitzarmen (4)**

Indarrean den plangintza kudeatzeko eta egikaritzeko zehaztapenak eta baldintzak ezartzea xede duen hitzarmena.

**es** convenio de ejecución urbanística

287

**hirigintza-gainbalioa lagatzeko eginbeharrari buruzko hitzarmen (4)**

Hiri-lurzoru finkatugabearen eta lurzoru urbanizagarriaren jabeek batez besteko eraikigarritasunaren zati bat lurzoru-ondare publikoari lagatzeko eginbeharra betetzeko sinatzen den hitzarmena.

**es** convenio sobre el deber de ceder la plusvalía urbanística

288

**hirigintza-hitzarmen (4)**

Administrazioaren eta hirigintza-interesak dituzten pertsona publikoen edo pribatuen artean sinatzen den hitzarmena; besteak beste, helburu hauek ditu: lege-zehaztapenak osatzea eta ukitutako alderdi guztiak ados jartzea.

**es** convenio urbanístico

289

**hirigintza-lankidetzako hitzarmen (4)**

Administrazio publikoek eta haiei atxikitako entitateek edo haien menpe daudenek beren eskumenen esparruan eta legeriak baimendutakoarekin bat etorritik hirigintza-jardueraren egikaritzan sina dezaketen hitzarmena. Toki-erakundeei gai hauei buruzko laguntza eta lankidetzaren ematea da hitzarmenaren helburua, besteak beste: hirigintza-antolamendua, plangintza-tresnen egikaritzea, eraikintzako eta lurzoru-erabilerako esku-hartzea eta legezketasunaren babesa.

**es** convenio de colaboración urbanística

290

**hondar-metodo (4)**

Lurzorua balioesteko metodoa; amaitutako produktu higiezinaren salmenta-prezioaren eta haren produkzio-kostuen arteko aldearen balioa esleitzen dio lurzoruari. Bi modalitate daude: estatikoa eta dinamikoa.

**es** método residual

291

**hondar-metodo dinamikoa (4)**

Higiezin-sustapen baten uneko balio garbia zehazteko erabiltzen den hondar-metodoaren modalitatea; kontuan hartzen dira denbora, prezioen bilakaera, arrisku-prima eta arriskurik gabeko tasa.

es método residual dinámico

292

**hondar-metodo estatikoa (4)**

